



JOKIN ERKOREKA

# ODOLA ETA G A T Z A

erein

ODOLA ETA GATZA

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.

Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra  
(Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.*

*1. argitalpena: 2026ko urrian.*

Azaleko argazkiak:

© Alex Erkoreka Abio

Tatuajearen diseinua:

© Mihail Tattoo

Azalaren diseinua:

Ivan Landa

Maketazioa:

Asier Beltza

© Jokin Erkoreka

© EREIN. Donostia 2026

ISBN: 978-84-1093-146-6

L.G.: D 793-2026

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

[erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)    

Inprimatzailea: Ulzama

Altzutzate kalea, 51

31620 Huarte, Nafarroa

T 948 332 808

[contacto@ulzama.com](mailto:contacto@ulzama.com)

[www.ulzama.com](http://www.ulzama.com)



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasagarrian kudeatutako basoetatik dator.

Jokin Erkoreka

# ODOLA ETA GATZA

POEMEN AUKERAKETA ETA EDIZIO-LANA:  
IRATI ITURRITZA ERREA



## SAIHETSEN ARTEAN NORBAIT

«Itotzen duen orok/ araztu egiten du», dio Jokin Erkorekak, «arrosario baten antzera». Badauka poesiak zerbait arrosariotik, zerbait mantratik, hitzen erritualetik. Mantra horien bila irakurtzen ditut poemak. Inguruan gertatzen dena ulertzen laguntzen didate, baina ez hori bakarrik; adi baldin banago, benetan isilik geratzen banaiz eta gai baldin banaiz soinuaren arteko isiluneak entzuteko, posible da sumatzea nola aktibatzen diren hitzen eta munduko gauzen arteko tentsioak. Orduan hasperen egiten dut, metaforikoki edo fisikoki, eta borroka horren irabazlea –irabazlerik baldin badago– txalotzen dut, eta pentsatzen dut: «Eskerrak beste norbaitek hau idatzi duen nik jakin baino lehen hau eskatzen diodala literaturari».

Mantrek egunerokoan laguntzen didate, batez ere irakurtzen ez naizenean ari. Orduan zaizkit hitzak baliagarrien eta fidagarrien: deitzen ditut eta niregana datoz berehala, eta mundua zabalagoa dela senti dezaket, edo badaudela, behintzat, mundua zabaltzen duten begiradak. Sylvia Plathen «Ilargiak irribarre egingo balu, zure antza izango luke».<sup>1</sup> Emily Dickinsonen

---

<sup>1</sup> Iñigo Astizen itzulpena.

«Prosa barruan itxi ninduten/ –Haurtzaroan Armairuan–».<sup>2</sup> Laura Casiellesen «txoriaren/ arintasuna/ ikastea». Sholeh Wolpéren «etxea falta den hortza da». Jokin Erkorekaren «eskuekin altxatu nuen erresuma hau».

Duela urte batzuk irakurri nituen Jokin Erkorekaren poemak lehenengo aldiz, baina askoz lehenago izan nuen horiek entzuteko aukera. Ordutik izan ditut bere hitzak bidelagun, mantra, esku-argi eta kontsolamendu. Nire arrosario-kolekzioaren parte diren heinean, Erkorekaren hitzak paperetik atera eta gorpuzten dira; irakurtzean ere «ahoskatzean asmatzen zaizkit/ berbak trakets», eta irakurri baino, behin eta berriz entzuten ditut, eta beti topatzen dut haiengan esanahi berriren bat. Nirekin, nigandik hurbil, mantentzen ditut hitzon arrastoak, uhinak «eta ingeradak/ eta ingeradak».

Unibertsitatean hasi berritan, literatur tailer batean topo egin nuen Jokinekin. Hurrengo urteetan zehar elkar ezagutu eta irakurri genuen, lagun bilakatu ginen, testuak oparitu genizkion elkarri, eta Jokinek egiak eta gezurrak kontatu zizkigun bere aitona-amonen etxeko armairuei buruz. Baina horren guztiaren aurretik, ia-ia hasieratik eta eskuzabaltasun osoz, «Gaztelua» poema eskaini zidan, zigun, ozen eta irmo. Jokinek poema irakurri zuen, eta gu guztiok mutu gelditu ginen: «Hautsa eta isiltasuna eta usoak eta ni». Edo gu. Sumatzen genuen entzun berri genuena garrantzitsua zela, laster egingo zigula ihes argitasunaren eta zorroztasunaren oihartzun horrek. Eta gurekin gorde nahi genuen egia zati txiki hori, gerorako, badaezpada.

Ondorengo orrialdeetan bilduta daude egun horretan iragarri ziren altxorretariko batzuk, «uncoro/ gizaki berbera» ez izatearen kontzientziatz, norbere ahotsarekiko konfiantzaz eta intimismo konprometituaz –edo konpromiso intimoaz– beteta

---

<sup>2</sup> Angel Erroren itzulpena.

daudenak. Etengabeko bilaketa proposatzen digu Erkorekak poema-sorta honetan, eta ausartzen da, tartean, «begiak eta planetak eta ikurrak» interpretatzera, «tresnak asmatzera», betiere «egiaren ertz guztiekiko liskarrean» eta kontatu nahi duenaren konplexutasunari uko egin gabe.

Berriz datorkigu Jokin Erkoreka «haragi zatituz/ betiko doinua/ kantatzera». Liburua ireki eta berari entzutera gonbidatzen zaituztet. Disfrutatu hitzen kadentziaz, aurkitu, momentu batez bada ere, buruan darabilzuen hori esateko modu zehatzago bat; beharbada, erritual txiki bat ere eramango duzue zuekin.

IRATI ITURRITZA ERREA  
Iruñean, 2026ko irailean

Jokin Erkoreka

ODOLA ETA GATZA

*Juan Abio,  
Juanito Erkoreka,  
eta Pili Gervasioren oroimenez:  
bakarra da  
odolaren norabidea*

*Asteon ez du  
euririk egin—  
joan den asteko guztia  
irentsi dute  
espaloietako harlauzen  
ildaskek*

## UNAMUNO, LARUNBATA 01:36

Ahoak zapore  
alkalinoa du, ia metalikoa  
xaboia eta pikantea  
nahastearena bezalakoa.  
Edalontzi bat ostu dut  
tabernaren  
batetik,  
ekintza dohatsua, ausarta: pobrezia moralari  
monumentu bat  
gabiltzan garaiotan. Kaleek  
beti bezala ziruditen  
txiza errekei eta  
txosna eta alde zaharretan  
hain ohikoa den  
kostozko kanutoen  
usainari  
dagokionez. Gorputzek imajinazioaren  
kantoiak bete zituzten beste behin:  
kaleak zabalduz  
elkarrizketen bitartean,  
komunitate jario bat, egiazko  
mundura buelta. Zaratak  
indargetuz doaz  
Mallonako galtzadak  
igo ahala: Jakue berarengandik  
zenbat eta urrunago lasaitzen dira  
aldarteak, bidea da  
bide bakarra. Noren

kezka ote den hau guztia  
ulertzea eta zentzu bat ematea eta  
agian beste inori azaltzea  
ahal dudan argien:  
nirea.

## GAZTELUA

Eskuekin  
altxatu nuen  
erresuma hau.  
Bularrean daramat gaztelua,  
egunero ikus dezaten  
koroa kendu nahi didatenek.

Neure erresuman errege naiz, nola  
ez, noski,  
baina bakarrik nago,  
eta harlanduzko paretek  
ahotsa itzultzen didate.  
Eta eskuekin bilatuz noa  
nire saihetsen artean norbait,  
baina ez du zentzurik:  
denak bota nituen.

Bost ajola,  
enperadore naizen legez,  
nire isiltasunarekin  
biziko naiz,  
eta, halaber, halabeharrez  
neure eskuetako hatzak  
jan  
beharko ditut.

Eta kaletik ibiliko naiz,  
harro, bularra puzturik,

eta hunkitzen nauenik  
aurkitzen badut  
bularreko gazteluan  
gordeko dut.

Baina momentuz  
hautsa eta isiltasuna eta usoak eta  
neu  
baino ez gaude  
galeria erraldoiak betetzeko.

## HARRIKOA

zurikeria neurri bat behar da  
gauzak egin eta  
ondoren  
horiek kontatzeko,

eskukaldia emateko  
norbera pausorik pauso  
eraisten ari  
denean,

hipokrisia apur baten beharra dugu  
gure inguruko gizakiak ez mintzeko  
hezteari ekiten diotela

gauza txarrak ere badaude  
gure ontasun ororen erroetan eta  
horiek onartzea besterik  
ez dugu

behin eta berriz  
garbitu behar ditugun  
platerak bezala,  
onartuta hondar oro kendu arren  
laster izan beharko ditugula  
berriz  
esku burbuilatsuetan

## ZUGZWANG

noren  
kezka  
ote dira  
leihootatik kanpo dauden  
gauza guztiak

kotxea atzera eta aurrera kulunka  
maniobra ezinezkoan  
angelu gero eta kamutsagoak  
marrazten

kedarra ere sumatu dezaket hemendik  
eta gidariak nire begirada zorrotza  
sentituko duela  
espero dut

kotxea balazta eta jo, balazta eta  
jo, balazta  
eta jo

nork daki  
nork izendatu dezake  
egoera hau

auto kamutsa eta ni  
zugzwangean

*Vous ne serez jamais heureux si vous continuez à  
chercher en quoi consiste le bonheur. Vous ne  
vivrez jamais si vous cherchez le sens de la vie.*

ALBERT CAMUS

aztoratuta nauka  
intentzioz izan  
eta  
soilik existitzearen arteko  
errotikako bateraezintasunak

ni ez naiz nahikoa azkarra  
ulertzeko nola etsi  
bestetasun korronteek eraman nazaten  
eta aldi berean  
ezerk axola diezadan  
uger egiteko nahikoa

uda da adibiderik argiena  
abuztuaren nagia ito-pasada egiten diola buruari  
hankak azalean daudela  
inongo tokirako bidean  
astintzen

neure burua itotzen dut  
nahi dudaren eta haren  
hutsaltasunaren artean  
kiribilka uretan

denboraren magurioa naiz  
oskola beti astunegi  
eta ura beti gaziegi